



HAU EZ DA GURE BAKEA!

Xabier gogoan zaitugu!

Xabier Rey Urmeneta euskal preso hilik agertu da bere ziegan, Puerto III espetxean (Espainia), Etxerat elkarteak jakinarazi duenez. Iruñean jaioa da Rey, 2008an atxilotu zuten eta, geroztik, lehenengo graduari egon da (Berria). Bilgune Feministatik argi eta ozen salatu nahi dugu Xabierren heriotza. Dispersioak eta isolamenduak, hau da, giza eskubideen urraketan oinarritutako espetxe politikak erail du Xabier.

Ukaezina da Euskal Herrian bake bidean urrats esanguratsuak eman direla hainbat arlotan, baina ez, aldiz, preso, iheslari eta deportatuen etxeratzeari begira, nahiz eta, Frantziako estatuak presoan hurbilpenari lotutako hainbat erabaki hartu dituen. Baina abagune politiko honetan, salbuespenetzko neurriek ez dute lekurik: ez isolamenduak, ez lehenengo graduak, ez dispersioak...

Bakegintza herri honen zein bertako herritarren burujabetza prozesuaren barnean kokatzen dugu, elkarrekin egin beharreko bide gisa, alegia. Bakea izan dugu hizpide azken urte hauetan gure herrian, eta ezin uka genezake gatazka politiko armatuaren konponbidean, urrats garrantzitsuak eman dugula ETAREN armagabetzearekin kasu. Baina, hemen ez da ezer amaitzen, ETA erakunde armagabetua den arren, bakea eta bizikidetzaren prozesua abiarazi behar dugu; biktima guztien aitortza, erreparazioa, memoria, justizia eta preso eta iheslarien etxeretzea oinarri izango dituen. Bide luzea dugu aurretik, bakea hori baino gehiago baita. Eta norabide horretan, gizarte zibila osatzen dugunok bakea, segurtasuna, memoria, justizia, aitortza, desmilitarizazioa, erreparazioa eta gizarte zibilaren beraren osaketa kolektiboki birdefinitzen gabiltza eta segi behar dugu. Bide horretan, Bilgune Feminista, eta, baita beste hainbat eta hainbat eragile ere, konpromiso horri jarraiki ari gara lanean.

Horregatik guztiagatik, espetxe politika ankerra hau salatzeaz gain, gatazka politiko armatuaren konponbidean preso, iheslari eta deportatuen etxeretzea lehentasunezko urrats bat dela deritzogu, eta horretarako, konpromiso eta borondate politikoa exijitzen diegu bai espainiar, bai frantziar, eta nola ez, euskal gobernuei. Horrez gain, Xabierren

erailketa salatzeko egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko gonbita luzatu nahi diegu euskal herritar guztiei, bake bidean giza eskubideen errespetua oinarritzko abiapuntua baita. Amaitzeko, saminean lagun izan nahi ditugu Xabierren senide eta lagunak.

Lehentasunez, denak etxean eta bizirik nahi eta behar ditugulako, euskal preso, iheslari eta deportatuak etxera!

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA
Euskal Herrian, 2018ko martxoaren 7an